

# AKTA

<b>Akta zenb.</b>	2009/6
<b>Organoa</b>	Udalbatza
<b>Batzarra</b>	Ohiko Osoko Bilkura
<b>Tokia</b>	Udaletxeko areto nagusia
<b>Eguna</b>	2009-09-24
<b>Deialdia</b>	Lehenengoa
<b>Hasiera ordua</b>	Arratsaldeko 19'30etan.
<b>Amaiera ordua</b>	Arratsaldeko 19'50ean.

## Bertaratutakoak:

1. Jesús M. Fullaondo
2. Iker Arostegi
3. Kepa Arrizabalaga
4. Leixuri Arrizabalaga
5. Gotzon Arrieta
6. José M. Markaida
7. Deitze Erkoreka
8. Maite Elordui
9. Iñaki Aginaga

**Aholkulari juridikoa:** Ortzi De la Quintana

**Behin-behineko Idazkaria:** José Ignacio Etxebarria Atutxa

Idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar dan gutxieneko kopurua dauala ikusi ondoren, eguneko aztergaian agertutako gaiei buruz eztabaidatu dabe:

### 1.- ARTEKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

2009ko ekainaren 22ko eta uztailaren 30eko osoko bilkuretako aktak, ahobatez onartzen dira.

## **2.- ALKATETZA DEKRETUAK.**

2009-84 zenbakitik 2009-115 zenbakirarteko Alkate dekretuen kontu emoten da, eta ez da oharrik egon.

## **3.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ESKAKIZUNAK.**

Gizarte langileak egindako txostenak kontuan harturik, ahobatez onartu da M.E.S-eri 832,25.- eurotako, M.F.R.-ri 1.740,00.- eurotako gizarte larrialdietarako laguntzak emotea, eta A.A.S.-eri etxez etxeko laguntza zerbitzua astean bi ordutan haunditzea.

## **4.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA.**

J. M. Markaidak esaten dau aurrekontua egiterakoan eurek proposatu ebela bideetarako diru bat ipintzea eta orduan atzera bota zala ez zegoelako dirurik, eta orain eskakizuna eginda beste gauza bat pentsatuta baina eurei inolako galderarik egin barik. Zeuk egin dozu eskakizuna zeuk gura izan dozun bideetarako eta orain aurkezten dozu modifikazio hau.

Alkateak erantzuten deutso, bai badakizu aurrekontuetan ez zala egon potsibilitaterik dirurik ipintzeko inbertsioetan bideetarako, eta orain diru hau pentsatu da geratzen dan denbora hiru hilabete dala eta mantenimendu gastuetatik ateratzea. Zergatik bide honek? Ba hiru bide honek Madriletik etorri zan Fondo Estatal laguntzatik kanpo geratu zirelako eta konpontze behar izana daukatela ikusten genuelako. Orduan beste leku batetik dirulaguntza lortzea erabaki genuen, eta emon deuskue laguntza baina ez guk eskatu dogun beste, 22.000 euro baino bakarrik, eta laguntza hau ez dogunez galdu nahi modifikazio honegaz bide honeetan konponketa txiker bat egitea pentsatu dogu. Atera mantenimendutik 15.000 euro eta 22.000 eurogaz guztira 37.000 eurogaz bide honeetan konponketa bat egin.

J. M. Markaidak esaten dau bai ados dagozela bide horreek konpondu beharrean dagozela, baina zuek eskatzen dozuen dirua proporzinoan Loittiko biderako 44.000 euro eskatzen dozuez, Igartuako biderako 12.000 eta Liberako biderako 9.000 euro. Guk ikusten doguna da, Loittiko eta Igartuako bideek konpondu beharra daukatela, baina zenbat pasatzen dira bide horreetatik, eta Liberako bidetik 14 etxebizitza dagoz eta egunero pasatzen dira eta euri gota bat egiten dauenerako handik ezinda pasatu, eta bakarrik 9.000 euro gastatuko doguz.

Alkateak esaten dau, eta orain horrek bere ez, ez daukagulako.

J. M. Markaida zinegotziak esaten dau, daukagun diruagaz egin nahi dogun obrak ez dauala konpontzen hango arazoa.

J. M. Fullaondo alkateak erantzuten deutso, daukagun diruagaz konponketa batzuk egin ahal doguz bakarri. Guk 66.000 euro eskatu genduzan eta bakarrik 22.000 emon deuskugunez ahal dana egingo dogu. Gure 15.000 eurogaz 37.000 euro dira eta horrekaz aparejadoreak pentsatu dituen gutxieneko konponketak egingo dira. Loittira 7.000 euro lotzen jakoz, todo unogaz partxea bat egiteko. Herrikobasok daroa

partidarik gehiena hormigoizko bide bat dalako, eta horregatik 22.000 euro daroaz, eta beste 3.000 euro Liberotara doaz, eta ez dago besterik.

J. M. Markaidak esaten dau, ba ez badago ez dago eta guri dirua ez dala galdu behar eritsitzen jaku, eta dagoena aprobetxatu egin behar dala, baina ez jaku eritsitzen zelan eroan dan eta orduan abstenidu egingo gara.

Bozkatzera pasatuz gero, honela geratu da:

-Abstentzioa: 5 boto (J. M. Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka, Gotzon Arrieta eta Iñaki Aginaga).

-Alde: 4 boto (J. M. Fullaondo, Kepa Arrizabalaga, Iker Arostegi eta Leixuri Arrizabalaga).

## **5.- ESKABIDE ETA GALDERAK.**

José M. Markaidak esaten dau Artzubitik Liberora dagoen bidean Artzubin sartzetakoan batxe bat dagoela eta egunero handik kotxegaz pasatzen direnak kolpe hartzen dabela. Gero bai Santunetik eta bai Gibelondotik euri egiten dauenean bajatzen diren urekaz bidea beti dago beterik karkaba bat bere ez dagoelako eta orduan handik ezinda pasatu. Gero Liberotara basoaz Matierrota aurrean ure.

Alkateak esaten deutso, gogoratzen zara hor tubo bat ipini zala ezta?

J. M. Markaidak esaten dau, bai baina Matierrotarago kaminoa urez beterik egoten da, eta oraingo egunetan oinez ibiltzen dan jendea 3 edo 4 egunetan ezin pasatu izanda.

Kepa Arrizabalagak erantzutzen deutso esanez, oraingo egunetako urarena ezinda esan.

J. M. Markaidak esaten dau, bai baina han euri apur bat egiten dauenean ez dago pasorik. Eta gero, lehen konpondu zana ostabere bardin dago, nik beti komenta dotena da, eskabadoragaz mantenimendu apur bat egiten ez bada egun bian barriz dagola sarratuta.

J. M. Fullaondok esaten deutso, karkaba guztiak mantentzea urte guztizko beharra da. Orain egin dauan eurigaz arazoak leku askotan eduki doguz.

J. M. Markaidak erantzuten deutso, hori pasatu da ur kolpeak afektatzen dauan lekuetan, baina han ur kolpeak beste leku batzuetan baino gehiago afektatzen dau; ur gitxigaz bere bardin lotzen da, ze ez dauka saldarrik.

Alkateak esaten deutso, bai badakigu karkabak garbitu beharrean dagozela, ze orain arte bere ez dira garbitu, eta hor ni zugaz nago garbitu egin behar direla, baina partida bat sartu beharko litzateke horretarako, ze beharginak saneamendutik orain ateratzen badoguz, eta behar biak ezin dira egin batera.

José M. Markaidak esaten deutso, badakigu danak ezin direla egin batera, baina badagoz egunak eskabadorak euri ugerra egiten daualako saneamenduan beharrik ezin dauzenak egin, eta orduan egin ahal dira behar horrek.

J. M. Fullaondok erantzuten deutso, arazo horreek beste leku edo auzo batzuetan bere badagozela.

J. M. Markaidak esaten dau, zein auzo dago urtean 3 edo 4 bider bidea uregaz tapatzen dana eta jendeak ezin dauana pasatu.

Alkateak erantzuten deutso, Sakonetan bere goitik Gordotik datorren ure bide gainerik doa.

José M. Markidak esaten deutso, hango moduan ura lotuta dagoena inon bere ez.  
Beste bat esango deustut, Butroin egin dan bide barrian ez jakolako salidarik emon.  
Alkateak erantzuten deutso, hori “vega” da.

J. M. Markidak erantzuten deutso, horregatik “vega” dalako beste leku batzuetan  
baino mantenimendu gehiago egin beharko da.

Iluntzeko 19'50etan amaitutzat emon da bilera.

**IDAZKARIA**

**ALKATEA**

(Grabazioa: WS\_10128.WMA)